

GIL 14 Arnarri muturreko multzoa



Arnarri puntako mendoiaren airetiko ikuspegia, Ogoñotik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 24' 40,50" N
Long.: 2° 39' 17,08" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 527.952,88 m
Y: 4.806.543,01 m



Nola iritsi

Urdaibain, Arteagan, BI-2238 errepidea hartu behar da Muniategi auzoraino; han, BI-3234 errepidea hartu behar da, Oka ibaiaren bokalaren ekialdeko ertzean zehar, Lagako hondartzaraino. Arnarri mendoia hondartzaren ekialdean dago, eta hondarretatik oinez iristen da hara. Hobe da marea behean dela joatea.

GILaren deskribapen laburra

GIL honetan, interesa duten zenbait elementu geologiko biltzen dira.



Paleokarsta eta Gilbert motako delta agerian uzten dituen bloke-jausien airetiko ikuspegia.



Koral adartsuen tuparrien gaineko kolonizazioa (Urgondar konplexuko faziesa).

Arnarri mendoia Urgondarreko kareharri karbonatuen unitate batez eratua dago; kareharri horiek bertikalki kokatuak daude, sakonera txikiko uretako plataforma karbonatuen ohikoak diren fosil ugari dituzte, bereziki errudistak (polikonitidoak), *Chondrodonta* sp. eta koral masiboak eta adartsuak (1. irudia). Kareharri horiek mugatuz, oinean, unitate siliziklastikoak daude (Gilbert motako delta handi batekin); ganean, berriz, unitate tupatsuak.

Badira, halaber, interes tektonikoa duten elementuak (hala nola alderantzizko faila bat eta diaklasa-sistema konjugatuak) eta Kuarternarioko elementuak.

Higadura diferentziala eta amiltzearen eraginez, zenbait hodi-karstiko bete azaleratu dira, gaur egun aktibo ez daudenak. Hodi horiek egitura-norabide argia dute, hodi bertikalak gidatzen dituen diaklasatze bizi batek markatua, zeinak galeria freatikoen garapena bultzatzen baitu diaklasen elkarguneetan. Paleokarstaren betegarri sedimentarioak izaera bikoitza du; batetik, detritikoa (siliziklastikoa), konglomeratu polimiktiko aloktonoz eta matrize hareatsuz osatua, eta, bestetik, kimikoa (kaltzita), hainbat espeleotema motaz osatua. Garapen handiena duten barrunbeetan, betegarri detritikoa oinean gelditzen da, eta hauspeakin kimikoak barrunbeak eta arrakalak betetzen ditu. Segida sedimentario hori bost bider ere errepikatzen da bertikalean, eta barrunbeak betetze polifasiko bat izan zela erakusten du horrek. Galeriak kostarekiko paraleloak dira, eta haien hainbat ezaugarri adieraz lezakete urak nahasten ziren inguru batean garatu zela paleokarsta Arnarriko marearteko zabalgunearen urgaineratze-etapan.

Behatzeko punturik onena

In situ.



Alderantzizko faila, deltako fazies siliziklastikoak fazies tupa-tsuen gainean finkatzen dituen (Behe Kretazeoa).



Gilbert motako deltaren geruzapen gurutzatuak, ibai-domeinukoak (Behe Kretazeoa), lignito-zati ugari dituztenak.

Erlazionatutako GILak

- **Geográficamente:** LIG 92, LIG 98, LIG 100, LIG 104.
- **Temáticamente:** LIG 15, LIG 16, LIG 17, LIG 18, LIG 19, LIG 64, LIG 65, LIG 66, LIG 88, LIG 104, LIG 105.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa			●	
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					



Behe Kretazeoko kareharrietako errudistak eta chondrodontak (plataformako faziesa).



Kostaldeko dinamikaren eraginez jausten diren bloke handiek agerian utzitako paleokarsta; bloke-jausi horrek, bestalde, labarra atzeratzea ere eragiten du.

Bibliografia espezifiko

- MAGNA, 38. zk.
- EVE 38-IV zk.
- A. Aranburu, L. Damas- Mollá, P. García-Garmilla, E. Iriarte, M. Jiménez, I. Yusta, M. Arriolabengoa eta P. Iridoy (2008) *El paleokarst costero de Asnarre (Urdaibai, Bizkaia)*". X Reunión Nacional de Geomorfología: Trabajos de Geomorfología en España (2006-2008), 41-41.
- Mendiá, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba/Reserva de la Biosfera, Eusko Jaurlaritza, 182. or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>
- Mendiá, M., Monge-Ganuzas, M., Díaz Pinto, G. eta González Lastra, J. (2011). *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Geologia Interesguneen Gida-liburua / Guía de Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 344. or.